

Herrian denboraz kanpoko erro-  
mantikoak baditugu, baina berari  
Erromantizismoaren epizentroan,  
Parisen egotea egokitu zitzaion garai  
horretan. Alde horretatik, zubi-lana  
egin zuen gure herria eta kulturaren  
eta Europaren artean, eta hori ika-  
ragarria da.

**Zer nabarmenduko zenuke bere  
ibilbideaz edo bere izaeraz?**

–Jende izugarri ilustratua zen, asko  
irakurtzen zuen txikitatik. Amama-  
ren etxean bizi izan zen, Maulen,  
Allande Oihenart abokatua zenaren  
etxean, eta haren liburuetatik asko  
irakurri zuen. Oso jende jantzia zen,  
Euskal Herriko liderren artean ilus-  
tratuenetako bat. Kausa zuzenen  
aldekoa zen, bizia eman zuen, adi-  
bidez, euskaldunon gramatika  
nazionalaren beharraren alde. Ema-  
kumezkoen elitearen zirkulu litera-  
rioetan ibili zen. Etorodoxoa eta  
ezohikoa izan zen. Politikoki, ideo-  
logoa, errepublikaren aldekoa, erra-  
dikala, independetista, antiklerika-  
la... Hala ere, eta hori uste dut bere  
bertuteetako bat izan zela, jakin izan  
zuen politikoki berarekin zerikusirik  
ez zuen jendearekin lan egiten.  
**Gaur egun ere, beraz, politikari  
ona izanen zen...**

–Ikaragarria. Ezinbestekoa. Berak  
erraten duela “Biba independen-  
tzia, biba errepublika, biba Euskal  
Herria!”, hori, niretzat, eguneroko  
ateratzeko beharrezko oinarri bat  
da. Hortik beheiti, deus ez onartu.  
**Eta gainera, feminista.**

–Eta gainera feminista, bai. Norbai-  
tek horren dudarik badu, aski du  
sartzea Frantziako Liburutegi Nazio-  
naleko artxiboan eta hor ikusiko du  
XIX. mendearen lehenbiziko erdian  
zer nolako mintzoak zituen, egiazki  
emakumezkoen aldekoak. Artiku-  
luak eta artikulak argitaratu zituen  
bai Elizako bai Frantziako legea  
salatzen. Bere liburuetan ere ema-  
kumezkoen presentzia izugarri  
nabarmena da. Aitzindari bat izan  
zen.

**Aztihitza, Eusklabo alaiak,  
Gartxot... Gure herriaren historia-  
tik edaten duen egilea zarela erran  
daiteke?**

–Bai, nola erran, miseriatik gauza  
positiboak atera behar direla uste dut.  
Herri honetan dena daukagu egiteko,  
hainbeste bide desegiteko eta hain-  
beste desikasteko, gure burua ispilu  
aurrean ezagutu arte. Edozein gauza  
eginda ere, ongi etorria dela uste dut.  
Pribilegio hori badaukagu. Alde  
horretatik, pribilegiatua sentitzen naiz  
Xaho bezalako pertsonaia bat ekar-  
tzeagatik. Edozein estatutan, horrela-  
ko pertsonaia batek bere monumen-  
tuak izanen lituzke plazetan, kaleei  
bere izena jarriko litzaizkiok. Baina  
egun, Baionan, Piers karrikatik pasa-  
tu zaitezke: Frantziako hiltzaile han-  
dienetako bat. Horrelako adibide uga-  
ri ditugu gure herrian. Ez-normalta-  
sun horretan bizitzera ohituta gaude  
eta argi dago euskal kurrikuluma ez  
dugula sekula osatuko herri librea ez  
guren bitartean.

**Dena dago egiteko, beraz.**

–Bai, dena. Arturo Campionen lana  
edo Xaho bera berreskuratzea, nire-  
tzat, terapia bat da, nire burua ispi-  
lu horretan ezagutzen hasten bai-  
naiz; eta aldi berean uste dut dela  
bide bat izugarri oparoa kultura eli-  
katzeko. Pentsa Estatu Batuetan

armadak zenbat film finantzatu  
dituen, guzti hori iruditeria naziona-  
la indartzeko... Guk deus ez dugu eta,  
oraingoz, ditugun ahalmenak eta  
baliabideak horretara bideratu behar  
ditugula uste dut.

**Nabarralderen eskutik plazaratu  
berri duzun azken komikiak ere  
ekarpena egiten dio memoria his-  
torikoaren berreskurapen horri,  
ezta? Zer kontatzen du 1620, Nafa-  
rroa Beheregaina-k?**

–Durangoko Azokan beste ikerke-  
tatxo bat egiteko baliatu nuen azken  
komiki hori ere. Hurbiltzen zen jen-  
deari galdetu nion: Nafarroari noiz  
kendu zioten independentzia?  
**Kendu, eta ez galdu.**

–Beti erabiltzen dugu “galdu” hitza  
eta ez da hala. Erronkarin ez zen  
euskara “galdu”, euskaraz hitz egiteko  
eskubidea kendu egin zioten Erron-  
kariri. Independentziarekin berdin  
gertatzen da. Galdu, boligrafo bat  
galtzen da, ez independentzia. Esta-  
tu batek bere mekanismo guztiak  
martxan jartzen baditu migrazioa  
dela, armada dela, eskola dela, beste  
herri bat asimilatzeke, hor ez da ezer  
galtzen. Hor, kendu egiten zaio herri  
horri bere independentzia modu  
kontziente batez. Kontutan hartuta,  
gainera, horren kontrako erresisten-  
tzia bat ere sortzen dela, gainera.  
Herri honetan, dena kenduta, geldit-  
zen zaigun gauza bakarra hizkuntza  
da. Hizkuntza honi lotzen gara bai-  
na, boteretik gabe, beti izanen gara  
“supremazistak” edo “inposatzaileak”  
eta, berriz, boteretik ezartzen den  
politika linguistikoa naturalizat joko  
da. Chivitek erraten zuena: “Buñue-

len euskara inposatzea Nafarroa eze-  
zagutzea da”. Ah, eta Luzaiden,  
Amaiurren, Errantzun edo Arbizun  
espainola inposatzea zer da, oxige-  
noa bezala? Onurak ekartzen ditu  
delako elebitasunak? Zenbat dauka-  
gun desikasteko...

**Harira itzuliz...**

–Harira itzuliz, noiz kendu zioten  
Nafarroari independentzia? Jende  
gehienak, 1512 erraten du. Hori dugu  
txertatua buruan nahi gabe, ahaztu-  
rik manera inkontziente batez eta  
politika oso eraginkor baten ondori-  
oz, beste mende batez iraun zuela  
oraindik Nafarroa subiranoak. Gai-  
nera, munduari adibidea eman zion  
garai bat izan zen. Euskararen alde  
egon zen politika bat egin zen, bazen  
irekidura bat Europarantz. Nafarroa  
aitzindariena izan zen horretan, Sor-  
bonako pentsalariak aterpetu zituen,  
libertinoak eta humanistak zirela  
erraten da. Estetikoki ere hala izan  
zen, eta hori ez onartzen huts egiten  
dugu, gure kalterako da. Bide ikara-  
garri joria daukagu mende honetan.  
**Zertan oinarritzen da komiki hone-  
tako kontakizuna, zehazki?**

–Hiru urritan gertatutako hiru gerta-  
kari historiko berreskuratzen ditut.  
Lehenbizikoa, 1527an espainolak bes-  
te aldetik erretiratu eta Baxe Nafarroa  
bere gain utzi zuteneko. Estatua ber-  
tan berrerratu zen. Aipatzen dudan  
bigarren urrian, Frantziako erregeak  
eta kontseiluak Nafarroa ez zela inde-  
pendentea izango, baizik eta Fran-  
tziari lotuko zela erabaki zuteneko  
da. Momentu horretan, erresisten-  
tzia aktibo bat egin zuten nafar poli-  
tikariak: armen bidez ez zen posible  
baina bai politikoki, erakundeen  
bitartez. Nafarroako Parlamentuko  
presidentek liburu bat idatzi zuen,  
argumentario luze eta zabal bat ema-  
ten, errateko hori ez zela ez natura-  
la, ez desiragarria, ez legala, eta Nafa-  
rroak ez zuela sekula halakorik onar-  
tuko. Hain diskurtso beharrezkoa da  
guretzat... Baina ezezaguna da eta  
baztertua izan da: Lostau izeneko pre-  
sidente horren liburua ez du inork  
ezagutzen, eta ikuspegi nazional izu-  
garria ematen digu. Hirugarren urria,  
Frantziako Iraultzan kokatzen da:  
nahiz eta nafartarrek iraun erresisten-  
tzian, 1790eko urriaren 12an Nafa-  
rroa legez kanpo bahitua izan  
zenekoa.

**Guzti honetaz irakurketa egunera-  
tu bat egin daiteke?**

–Irakurketa aktuala eta polita dauka,  
bai. Nafarroako historia armen bidez  
inposaturiko egoera baten isla da, eta  
erresistentzia beti egon dela erakus-  
ten digu. Gure herria ukatua izan da  
eta ilegalki ukatua gainera, ez dugu  
horretan parte hartu. Posizionamen-  
du politikoki eta kulturalerandako  
sekulako garrantzia dauka guzti  
honek.

**Argitaratzen dituzun lanek zenbat  
daukate aldarrikatzailetik?**

Plazaratzen ditudan liburuak beti  
hartzen ditut aktibismorako bide  
bezala. Nik ez ditut ikusten apalate-  
gian goxoki egoteko. Orain jendeak  
*Aztihitza* erosi du Euskadi Saria ira-  
bazi duelako eta ongi, baina nik bes-  
te bizi bat ikusten diot liburukiari. Bes-  
te bizi hori, bai *Eusklabo Alaiak*-ekin  
baita *Aztihitza*-rekin ere, herriz herri  
ibiltzean oinarrituko da datorren  
urtean ere. *1620* komikiari ere bizi  
harroa ikusten diot. ●

## Mi querida Olivetti

### 2019: crónica, ensayo y narrativa




POR  
Santiago J.  
Navarro

**L**a *Cartuja de Parma*  
(Stendhal, Alba Editio-  
rial), *Las metamorfosis*  
de Archibald Malmaison (Julian  
Hawthorne, Ardicia), la colec-  
ción de *Cuentos* del poderoso  
Antón Chéjov presentada por  
Cátedra, la última novela de  
Rosalía de Castro (*El primer*  
*loco*, Alvarellos Editora), y el  
relato titulado *Los perezosos*  
(Charles Dickens y Wilkie  
Collins, Gatopardo Ediciones)  
son algunos de los clásicos revisi-  
tados este año, en el que se  
han presentado otros textos,  
estos narrativos, de enorme  
interés. *Un apartamento en Ura-  
no. Crónicas del cruce* (Anagra-  
ma) es el nombre del conjunto  
de artículos que conforman un  
libro en el que Paul B. Preciado  
da sentido al concepto de cróni-  
ca. Y en las entrañas de la cróni-  
ca se debate la acción de *¡Vámo-  
nos con Pancho Villa!* (Txala-  
parta), novela de Rafael F.  
Muñoz que este año recuperó el  
sello navarro y donde el perio-  
dista de Chihuahua sigue las  
andanzas de Los leones de San  
Pablo a lo largo de una de las  
revoluciones emblemáticas del  
siglo XX.

¿Cualidades más destacadas de  
la obra? Lean el libro y estarán  
seguros de hallar en este texto  
virtudes como las del periodis-  
mo literario en estado puro. Y  
duro. Igual de inquietante que  
la sociedad actual vista desde el  
filtro tecnológico y sus conse-  
cuencias, algo que ha originado,  
entre otros, *El ojo y la navaja*,  
libro de Ingrid Guardía para  
el sello catalán Arcadia; igual de  
duro que el panorama descrito  
por otras dos obras de Anagra-  
ma: *Yonqui*, reedición del libro  
de William S. Burroughs perte-  
neciente a una colección que  
celebra los 50 años del sello  
barcelonés, y el debut novelísti-  
co del mexicano Mateo García  
Elizondo *Una cita con la Lady*,  
ambas centradas en el cielo y el  
infierno de la drogadicción.  
Crónica o autobiografía, *No me*  
*avergoncé del Evangelio* es otra  
celebrada reedición, a cargo de  
Txalaparta y en beneficio del  
lector interesado en la execrable

situación en la que se encontra-  
ron quienes se enfrentaron al  
nacionalcatolicismo español en  
su inicio, caso del sacerdote  
navarro Marino Ayerra, a cargo  
de la parroquia de Altsasu ¡des-  
de el 17 de julio de 1936! Por otro  
lado, el universo de la música  
ligera se ha visto enriquecido  
este 2019 con varias entregas,  
algunas de las cuales son: *Yo*, la  
que está considerada como la  
primera autobiografía real del  
autor de canciones tan emble-  
máticas como *Your song*, Elton  
John, y los *Diarios* de Kurt  
Cobain, conjunto de cartas,  
dibujos y otros textos de otro  
icono de esta música (ambas en  
manos de Reservoir Books), así  
como *Lou Reed. Una vida*  
(Cúpula), biografía a cargo de  
Anthony De Curtis de quien  
escribiera himnos tan popula-  
res como *Walk on the wild side*.  
El *Diario urgente de Venezuela*  
de Marco Teruggi (Txalaparta)  
mantiene vivo otro género  
imprescindible en nuestros días  
y el ensayo ha contado con una  
serie de libros que han permiti-  
do el acceso del lector más inte-  
resado en dicho género a entra-  
ñas como las del universo judi-  
cial español de la llamada Tran-  
sición, gracias a *Amnistías, per-  
dones y justicia transicional*,  
notable trabajo de Roldán Jime-  
no para Pamiela. ¿Más ensayos  
de interés? El nombre de algu-  
nos de ellos, habla por sí solo de  
su contenido: *Una historia*  
*popular del fútbol* es el de  
Mickaël Correia, que ahora apa-  
rece en castellano gracias a  
Hoja de Lata; *¡No os importe*  
*matar! Sanfermines 1978: cri-  
men de estado* es el de Sabino  
Cuadra para Txalaparta. Pero la  
narrativa ha estado presente,  
igualmente, gracias a ejempla-  
res de obras como *El don de las*  
*piedras*, nueva novela de Jim  
Crace también para el mismo  
sello asturiano Hoja de Lata.  
Finalmente, la autoedición tam-  
bién se ha esforzado por no  
desaparecer de los escenarios  
de la creatividad contemporá-  
nea: uno de los trabajos más  
sugerentes de cuantos se han  
presentado en la vieja y olvida-  
da Navarra este 2019 es *Proyec-  
to Magix*, en el que el iruindarra  
Manolo Iturri funde poesía,  
relato e imagen y, de este modo,  
acorta el camino hacia un mun-  
do de tonos predominantemen-  
te oscuros e inquietantes. ●

**En las entrañas  
de la crónica se debate la  
acción de ‘¡Vámonos con  
Pancho Villa!’; novela de  
Rafael F. Muñoz que este  
año recuperó Txalaparta**



#### AZTIHITZA

● **Saria.** “Komikiaren lengoaiaren  
mugekin jolasten duen proposa-  
men arriskutsua izateagatik” sari-  
tu dute aurtengo Euskadi Saria-  
rekin Armenetaren lana. Erroa  
argitaletxeak argitaratuta, Agosti  
Xaho XIX. mendeko kazetari,  
idazle, hizkuntzalari eta politikari  
zuberotarraren bizitza du oinarri.

**“Herri orok behar ditu bere  
erreferenteak, bere heroiak,  
eta horietako bat izan  
zen Agusti Xaho”**

**“Independentzia  
ez da galtzen den zerbait,  
independentzia kendu  
egiten zaio herri bati”**